



Gero eta jende gehiago biltzen du Tolosako Merkatu Txikiak

DIRUA ▶ Sahara eta Indiara igorriko dute; saltzen ez diren produktuak, berriz, Emaus elkartearentzat dira

ETZI ARTE ▶ Etzi bitarte izango da zabalik, Kultur Etxeko beheko gelan, goizez eta arratsaldez ▶ 2



Jende andana ari da biltzen egunotan Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu Txikira; Kultur Etxeko behealdean dago. EDURNE AYUSO

ALEGIA ▶

2004ko diru laguntzak onartu ditu Udalak

47.769,33 euro ditu banatzeko; HITZAK 2.600 euro jasoko ditu horietatik ▶ 5

TOLOSA ▶

Xabi Alonsok ez du sei hilabetean jokatu

Liverpool-eko jokalaria tolosarrak orkatila apurtu zuen Chelsea taldearen aurka ▶ 3

LEITZA ▶

«Euskararen alde egin behar du Nafarroak»

Gobernuaren jarrera salatuko du Udalak ▶ 7

ALEGIA ▶

Pilota torneoko finalak ▶ 5

ASTEASU ▶

Urrezko Aizkolarien hurrengoak, erabakita

Olasagasti-Etxebeste finalean ariko da ▶ 4

ANOETA ▶

Juan Jose Martinek, EAJ-EAko zinegotziak, dimititu egin du

Anoetarrok Auzolanean plataformak beste hiru zinegotziena eskatu du ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Mohamed Salem Hach Embareki azken agurra

Gaixotasun batengatik hil zen herenegun ▶ 3

GIZARTEA ▶

Gero eta jende gehiago ari da parte hartzen Merkatu Txikian

Bederatzigarren edizio honetan biltzen den dirua India eta Saharara bideratzeko da, eta saltzen ez diren produktuak, berriz, Emaus erakundeari emango dizkiote



Merkatu Txikira jende asko hurbiltzen ari da gauzak eraman eta erostera. EDURNE AYUSO

Sahararen alde lanean

Merkatu Txikia Sahararen alde lan egiteko gune ere bada. Tolosaldea Sahararekin elkartek eta Udalak, EAEn martxan den Sahararen aldeko euskal Karabana, piztu itxaropena kanpainarekin bat egin dute eta Merkatu Txikia da, hain zuzen, laguntza bideratzeko aukeratu duten lekua. Abenduaren 26an hasi zen kanpaina eta hilaren 6an amaituko da.

Egun hauetan zehar, diruaz gain, atuna, azukrea eta konpresak bilduko dituzte Merkatu Txikian. Nahi duenak, Sahararen aldeko egutegi bat erosteko aukera ere izango du. Diru laguntzaren bat eman nahi izanez gero, Euskadiko Kutxako kontu bat bada: 3035.0080.94.0800054177. Informazio gehiago jasotzeko: 619 029 648. ◀

EDURNE AYUSO

Tolosako Merkatu Txikia Gabonetako klasikoa bihurtu da jada. Ez dira alferrik bederatzigarren urte pasatu, aurtengoa, hain zuzen ere, antolatzen duten bederatzigarren urte baita. Lasakorain ikastolako irakasle, ikasle eta guraso boluntarioen elkarlanari esker urtero-urtero aurrera ateratu den ekimen berezia da hau. Koldo Jauregik, Laskorain ikastolako irakasleak Hitzari azaldu dionez, «urtetik urtera gero eta jende gehiagok hartzen du parte, bai gauzak ekarzerakoan eta baita erosterakoan ere. Ikastolako boluntarioen partze-hartzea ere gehituz doa, aurten, esate baterako, 160 ikaslek baina gehiagok izena eman dute».

Tolosako 150 dendak ere bat

egiten dute ekimen honekin. Batzuk diruz laguntzen dute Merkatu Txikia, eta gehienek, dendako materialak eman dituzte bertan salgai jartzeko. Denda horien izenak Merkatu Txikian bertan dagoen kartel batean ikus litezke.

Koldo Jauregik adierazi duenez, «birziklapenaren kultura sustatu nahi dugu. Erosketak murriztu eta gauzak berrerabili egin behar direla uste dugu. Helburua, gauzak berrerabilteza da finean, eta hori posible ez denean, berriz, birziklatzea. Iruditzen zait Merkatu Txiki honen filosofia hori sustatzea lortu dugula hein batean. Esate baterako, Tolosan badira zenbait familia urtero-urtero opariak hemen erosten dituztenak. Zergatik? Bada, gure filosofia-rekin bat egiten dutelako. Hala ere, badira benetako beharra dutelako etortzen direnak ere. Ez dugu ahaztu behar inguruan ere jende behartsua badela izan. Beharreen dagoen jendeari erraztasunak ematen saiatzen gara».

Jauregik Hitzari azaldu dionez, Merkatu Txikia gizartearen isla da, gizartea aldatzen den heinean, merkatuko produktuak ere aldatu egiten dira. Modak omen du eraginik handiena. «Jendeak modan egon nahi du eta modakoa ez dena ez du erabiltzen». Esate baterako, orain dela bizpahiru urte moda-modan egon ziren patineteak Merkatu Txikian merkekerke salgai aurki litezke. Bestalde, badira urtero-urtero arrakasta berezia izaten duten gauzak, nabarmenena pelutxena omen da; urtero ehunka pelutxe ekartzen eta erosten ditu jendeak. Aurten salgai

INKESTA ▶ ZERGATIK ZARA BOLUNTARIO?

UNAI ARZELUS

BOLUNTARIOA, 17 URTE



«Laguntza eskatu ziguten eta libre nengoenez laguntza ematea pentsatu nuen.

Parte hartzen dudana hirugarren aldia da».

KARLA PROBENZA

BOLUNTARIOA, 14 URTE



«Hau parte hartzen dudana lehenengo aldia da. Laguntza emateagatik izena eman nuen eta gustura nabil.

Klaseko beste hamar bat lagun ere apuntatu dira».

JOANA EZKIAGA

BOLUNTARIOA, 14 URTE



«Merkatu Txikian laguntzeko boluntarioen zerrenda pasatu zuten gelan, eta izena ematea erabaki nuen. Gustura nago».

MAIALEN URANGA

BOLUNTARIOA, 14 URTE



«Ikastolan Merkatu Txikian parte hartzea proposatu ziguten eta laguntza ematera animatu nintzen».

AITZOL AIESTARAN

BOLUNTARIOA, 17 URTE



«Duela hiru urte parte hartu nuen lehenengo aldiz. Probatzeko eman nuen izena eta gustatu egiten zitzaidan».

dauden produktuen artean bada gauza bitxi bat: Citroen AX Z14 auto bat. Ikastolako ikasle baten aitona oparitutako auto hori 300 euroren truke eskura liteke.

Merkatu Txikian biltzen den dirua Saharara eta Indiarra bideratzeko dute. Saltzen ez den materiala, berriz, Emaus erakundeari emango diote.

Koldo Jauregik esan duenez, «birziklatzeko filosofia indartu behar dugu. Beira, papera edo kartoia eta plastikozko ontziak birziklatzen ohitu gara, baina, ez, ordea, arropa eta oinetakak berrerabili eta birziklatzen. Filosofia hau indartu behar dugu. Etxe arte Tolosako Merkatu Txikia irekita egongo da eta zuen zain izango gaituzue».

ERRETENGIBEL S.A.

LEHIAKETA

2004ko Urriaren 26an Erretengibel, Tolosako Udak zuzendutako Administrazio Batzordeko ondorengo klausula administratiboaren plegua onartu zuen:

1.- Helburua. Tolosako Toniles Eraikuntzaren (Plaza Berria 1) birgaitze lanak exekutatzea.
2.- Lizitazioaren zenbatekoa: Proiektu osoaren exekuzioa 2.036.472,14 eurokoa (BEZ barne) da, kopuru hauetan banatuta:

Izena	Euroak
Exekuzio materiala	1.623.368,52
Segurtasuna eta Osasuna	29.311,36
Kalitate-Kontrolako Programa	2.315,76
Gastu orokorrak eta etekin industrialak (%15)	248.249,35
BEZ	133.227,15
GUZTIRA	2.036.472,14

3.- Lanak egiteko epea: 14 hilabete.

4.- Espedientea ikusteko: Kopitec (Arin y Subijana Asociados S.L.), telefonoa 943654028, Faxa 943654029

5.- Behin behineko fidantza: 40.729,00 €

6.- Behin betiko fidantza: 122.188,00 €

7.- Kontratatzen dituzten berezikiak: Taldea C, Azpialdea 2 edo 4, kategoria e

8.- Eskaintza egiteko epea eta tokia: Erretengibel S.A.-n. Helbidea Plaza Zarra 10 behea, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datoren birharamunetik zenbatuta 26 egun naturalerako epean, eguerdiko ordubata (13:00) arte.

9.- Iragarkiarekin gastuak. Esleipendunaren kontura izango dira.

Tolosa, 2004ko abenduaren 14a.
Erretengibeleko Administrazio batzordeko lehendakaria.

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Mohamed Salem Hach Embarek

'Pakito'

(Fronte Polisarioko ordezkaria)

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.
Mila esker, Salem.

Tolosaldeko Sahararekin Elkarte

TOLOSA, 2005eko urtarrilaren 4a

ZESTA-PUNTA ▶



Irabazleak eta Beotibarko ordezkariak, garaikurrarekin. HITZA

Beotibarkoak, Gipuzkoako onenak

Iñigo Orrantia eta Mikel Mujikak irabazi dute Elkarteen Arteko txapelketa

LEIRE MONTES

Iñigo Orrantia eta Mikel Mujika Beotibar Zesta-Punta Elkarteko jokalariek irabazi dute 2004ko Gipuzkoako Elkarteen Arteko txapelketa, gazteen mailan. Donostia Jai Alai taldea izan zuten aurkari, eta 35-33 irabazi zieten tolosarrek.

Donostiarrak ziren txapela janzteko faborito, sailkapen faseko partida guztiak irabazita iritsi baitzen finalera Hernandez-Goikoetxea bikotea. «Baina Orrantia eta Mujika konplexurik gabe atera ziren kantxara. Donostiarraren aurka jokatu-tako partidak galdu arren, tarte estuaz galdu zituztelako. Tolo-

sarren jokoak planteamendu erraza izan zuten: atzean ahalik eta serioen eutsi atzelari donostiarraren joko ikaragarriari, eta aurrean, aukera iristen zen bakoitzean, Orrantia aurrelaria tantoa amaitzen saiatu, diote Beotibarko ordezkariak.

Partida parekatua izan zen, berdinketa ugariarekin. «33-31rekin, guk izan genuen partida erabakitze modua, baina haiek 33na berdintzea lortu zuten, eta sakearen jabe eginda, gauzak larri jarri zizkiguten. Hala ere, Tolosako jarraitzaileek ez bezala, patxadari eusten jakin izan zuten Orrantia eta Mujikak, tantorik zailenak beren alde egiten».

FUTBOLA ▶

Sei hilabetez jokatu ezinik izango da Xabi Alonso

Liverpool taldeko jokalaritola tolosarrek orkatila apurtu zuen larunbateko partidaren



Alonso, Liverpoollekin. HITZA

L. MONTES

Xabi Alonso Realeko jokalaria ohi eta Liverpoolleko (Erresuma Batua) jokalaritola tolosarra sei hilabetez jokatu ezinik izango da. Joan den larunbatean, Chelsea taldearen kontrako partidaren, orkatila apurtu zuen.

Hasierako hamaikakoan zen Xabi Alonso, baina lehen zatian zelaia utzi behar izan zuten: Chelseako Frank Lampard egindako sarrera go-gorak eragin zion lesioa tolosarriari.

HILBERRIAK ▶

Azken agurra Mohamed Salem Hach Embareki

Euskadiko Saharar ordezkariaren kidea herenegun hil zen, gaixotasun baten ondorioz

ESTITXU IMAZ - GOIERRIKO HITZA
LEIRE MONTES



Mohamed Salem. LEIRE MONTES

Atzo agurtu zuten Mohamed Salem Hach Embarek Euskadiko Saharar Ordezkariaren kidea, Zorroaga Tanatorioan. Irizar Intxausti eta Hach Embarek familiak, Euskadiko Fronte Polisarioko Ordezkariak, Saharar komunitateak, Euskadiko S.E.A.D.-ren Lagunen Elkartek, Euskal eta Estatuko Sahara Herriaren Adiskidetasun elkarteen Koordinadorek eta beste hainbat erakundeek omenaldia eskaini zioten. Mohamed Salem Hach Embarek herenegun hil zen, gaixotasun baten ondorioz. Azken agurra familiakoek emango diote intimitatean.

Mohamed Salem Hach Embarek sahararra zen, eta Gurutze Irizar emazteak adierazi duenez, «barru barrutik bizi izan du saharar herriaren gatazka politikoa». 1976an Sahara inbaditu zutenean hango egoera munduan inork ez zuen ezagutzen. Saharar batzuk aukeratu zituzten; horietako bat zen Mohamed Salem, eta munduan barrena ibili ziren mendebaldeko sahararren berri zabaltzen. Bera izan da Fronte Polisarioko Kanpo Harremanetarako saileko kidea eta munduko hainbat lekutan izan da ordezkari.

Indian zegoela bihotzekoa izan zuten. Bizitza erritmo hori mantendu ezin zuenez, etxera

etorri zen. Ormaiztegin zain zituena emaztea eta Garazi eta Beñat seme-alabak. Bere egoera ikusita, Gipuzkoako Elkartek liberatuta lan egiteko pertsona egokitzat ikusi zuten Mohamed Salem. Handik aurrera Gipuzkoa mailan hasi zen lanean. Eginkizuna bera: Saharar herriaren egoera politikoa eta soziala jende artean zabaltu eta aldatzen lagundu.

Tolosaldean Eguneroko egunkariak elkarrizketa egin zion duela bi urte, 2003ko urtarrilaren 4an. Sahararak herriak bizi duen «egoera injustua» salatu zuen orduan, beste behin. «1991an Marokoko erregea, sahararrek eta NBE akordio batera iritsi ginen, non erreferenduma egiteko eskubidea onartzen zitzaigun. Baina 11 urte pasatu dira, eta ez da erreferendum hori iritsi. Marokok ukatu egiten digu, ez zaiolako komeni. Badaki galtzen aterako dela», azaldu zuen. Eskubideak tinko defendatzen zituena: «sahararrek ez dugu inoiz Marokoko banderapean bizitzea onartuko.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Juan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.
Anoeta. 60 m2. Logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntzarekin. 192.325 euro.
Anoeta. Iturburu. Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntzarekin.
Asteasu. Eraikuntza berriko ebexa salgai. Lau solairurekin, lorategia eta terraza. Oso egoera onean.
Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.
Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.
Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.
Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran garaje ibxia salgai.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe abikia salgai. 270.455 euro.
Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!!
Legorreta. Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin. 142.440 euro.
Ordizia. Berritutako etxebizitza merkea salgai.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.
Tolosa. Amaro azoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.
Tolosa. Belate. Hiru logela eta bi bainugela. Berritua.
Tolosa. Emeterio Arrese. 110 m2. Hiru logela, bi bainugela, garajea.
Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrekin. Aukera paregabea!!!!

Tolosa. Erdialdean. 130 m2ko etxebizitza salgai. 4 logela (1 bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.
Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!!!
Tolosa. Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntzan, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.
Tolosa. Lurrarendi etxe abikia.
Tolosa. Lurre. Garaje ibxia salgai.
Tolosa. Lurre inguruan guztiz berritutako bi logelako etxebizitza.
Tolosa. Lurre. Hiru logelako pisua, ganbara eta garajea aukeran.
Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. Bi logela, sukaldia, egongela eta trasteleku. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Santa Klara. Lau logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitza sartzeko moduan.
Tolosa. Santa Klara. Hiru logelako pisua salgai, sukaldia, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza.
Tolosa. Trinkete. Hiru logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!
Villabona. Ebeondo. Pisu ganbara eta garaje ibxiarekin.
Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza berriko ebexa salgai. Garaje bikoitza ibxia aukeran.
Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.
Villabona. Larrean eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.
Villabona. Oriamendi. Hiru logela, egongela, sukaldia. 210.355 euro.

ASTEASU ▶ URREZKO AIZKORA

Finalerdietan izango dira Olasagasti eta Etxebeste bikotea

Otaegi zizurkildarrak eta Agertzak osatutako bikoteak erraz menderatu zituen aurkari nafarrak gazteen mailan

IMANOL GARCIA

Jose Mari Olasagasti eta Jose Etxebeste Urrezko Aizkora Txapelketako finalerdietarako txartela lortu zuten herenegun Asteasun jokatu zen lehian. Igeldoko bikoteak aurrean Joxemiel Peñagarikano eta Luis Txapertegi izan zituzten goraino beteta zegoen frontoian. 10 eta 3ko emaitza lortu zuten irabazleek.

Bestalde, Erasun zizurkilda-

rrak ezin izan zuen bere lehiaketa irabazi Beitiarekin osatutako bikotearekin. Erasun Lopez Azpilikueta ordez aritu zen, eta Nazabalen eta Erdoziaren aurka galdu zuten larunbatean Zeanurin jokaturako lehiaketan.

Otaegi, ikusgarri

Gazteen mailan ere izan zen lehiaketarik eta bertan Zizurkilgo Joseba Otaegik hartu zuen

parte, Agertza urrestildarra ondoan zuela. Gipuzkoako bikoteak guztiz menperatu zituen Larrion eta Amillano bikote nafarra. 17 eta 1eko emaitza lortu zuten. Otaegi izan zen, gainera, ikusle goak lehiaketa horretan goraiatu zuena egindako lan bikainagatik. Otaegik eta Agertzak aukera asko dituzte gazteen mailako finalera iristeko. Asteasun emandako mailarekin jarraituz gero, ez dute arazorik izango.



Kale Txikin duten egoera salatzeke, opariak Udalari

ANOETA ▶ Kale Txikin bizi den Josean Alonsok protesta berezia egin du Eguberri hauetan bere etxean bizi duen egoera salatzeke. Erreklamazio horri batekin batera, Eguberrietako opari moduan usteldutako pastak eta etxe barrura sartzen zen uraren botila bat eman zion Anoetako Udalari. «Etxean dugun hezetasunak usteldu ditu pastak eta botila etxe barrura sartzen den urarekin bete dugu, bizi dugun egoera kaxkarraren erakusle», azaldu du Josean Alonsok eta gaineratzen du: «Etxebizitzaren ondoan dagoen muintotik jaisten diren urek sortzen dituzte arazoak eta Udalak ez digu irtenbide egokirik eman oraindik». Bestalde, Anoetako alkatetzatik azaltzen dute epe motzean eskatutako diru laguntza jasoko dutela Kale Txikikoek, eta «beheralakoan ekingo diogu hobekuntzak egiteari. Horrela, saneamenduko hodia San Juan kalera bideratuko dugu». I. GARCIA

ANOETA ▶ POLITIKA

Juan Jose Martin EAJ-EAko zinegotziak dimisioa aurkeztu zuen osoko bilkuran

Anoetarrok Auzolaneanek beste hiru zinegotziren dimisioa eskatzen du

I. GARCIA

Azkeneko osoko bilkuran Juan Jose Martin Zubelzu PNV-EAko zinegotziak dimisioa aurkeztu zuen. Arrazoi pertsonalak argudiatu ditu Martin Zubelzuz kargua uzterakoan.

Dimisio honen aurrean Anoetarrok Auzolanean herri plataformatik balorazioa egin dute. «Urte eta erdi daramagu herriak aukeratu ez zituen zinegotziren dimisioa eskatuz, eta horietako batek kargua uztea positiboki hartzen dugu», adierazten dute herri plataformatik HITZARA bidalitako oha-



Juan Jose Martin Zubelzu. HITZA

rraren. «Hala ere, badaude beste hiru zinegotzi herriak aukeratu ez dituenak eta hauei ere gauza bera egin dezaten eskatzen diegu, horrela hutsune horiek Anoetarrok Auzolanean plataformako zinegotzietatik bete ditzaten», gaineratzen dute Anoetarrok Auzolaneanekoek.

Herri plataformaren esanetan, beste hiru zinegotziren dimisioarekin «udal hauteskudeetan herriak bozkaturako» udal txikian islatzea lortuko litzateke. Horrela, «EAJ-EA alderdiak bost zinegotzi eta Anoetarrok Auzolanean-ek lau zinegotzi izango litzateke».



Jaiotza antzeztu zuten San Millan elizan

ZIZURKIL ▶ Zizurkil Goiko San Millan elizan jaiotza biziiduna egin zuten Eguberrietako ospakizunaren baitan. Argazkian azaltzen diren San Millan eskolako bederatzita hamar urte bitarteko haurrek prestatutako obra txikia antzeztu zuten. HITZA

KIMETZ MUTILENTZAT
GAZTE ARROPA eta NESKENTZAT
ARROPA eta OSAGALETAN
ESKAINITZA HANDIA

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

EGUBERRIETAN ALDE ZAHARREAN IRABAZTEN ATERAKO ZARA

3.000€

Zatuz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 eurorainoko deskontua irabaz dezakezu.

J.ZABALA DESGUAZEA
Aukerako autoen aldagaiak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZUEGU

Beotibar Induriguenea, 19
Tel.: 943 67 17 90 • mug: 696 593 347
BELAUNTZA



Mandarinak eta intxaurrak botaz

ALEGIA ▶ Mandarinak eta intxaurrak banatu zituzten pasa den larunbatean, urtarrilaren 1ean, udaletxeko ordezkariak; «hiru kaxakada inguru banatu genituen», azaldu du Olatz Amundarainek, Alegiako alkateak. Herriko plazako arkupeetatik ordezkariak jaurtikitzen zituzten jakiak jasotzeko herritar ugari bildu ziren. Horieta asko poltsa eta guzti joan ziren, gainera. Aspaldiko ohitura da mandarinak eta intxaurrak banatzea: «Urte berria ondo hasteko» egiten dutela azaldu du Amundarainek. PATXI RENOBALDES

Gabon eskeko dirua hiru zatitan

ORENDAIN ▶ Hogeita hamar lagun inguru atera ziren abesten abenduaren 24ean Kultur Batzordearen eta Guraso Elkartearen deialdiarekin bat eginez; 09:00etan hasi ziren abesten eta iluntzera bitarte aritu ziren baserri baserri abesten. Traktorean mugitzen ziren alde batetik bestera. Lortutako dirua parte hartu zuten gaztetxoei eta haurrei eman zieten; beste diru kopuru bat, ia bezala. Etxerat elkarteari emango diote eta hirugarren zatia, berriz, herriko ekintzarako bideratuko dutela jakinarazi dute. HITZA

ALEGIA ▶ UDALA

lazko diru laguntzak zehaztu ditu Udalak

Guztira 47.769,33 euro banatuko ditu Udalak taldeen, Gobernu Kanpoko Erakundeen, komunikabideen... artean

OLAIA ESKITXABEL

Pasa den asteartean, abenduaren 28an, egindako udalbatzarrean erabaki zuen Alegiako Udalak 2004ko diru laguntzen banaketa. Guztira, 47.769,33 euro (8.000.000 pezeta) banatuko ditu.

Gizarte sailean, 21 talde eta erakunederi banatuko die dirua; kopururik altuena jubilatuen elkarteari emango zaio (2.050 euro), 1.050na euro banatuko die Atzegi, Ortzadar eta Gizakia Helburu taldeei eta preso familiariei. Hirugarren Munduko programetarako dirua ere bideratuko da; 1.000na euro emango zaie UNICEF BIKARTE, ACNUR eta Harresiak apurtuz Maroko taldeei.

Kultur eta kirol alorretarako, diru laguntzarako bideratuko den kopuruaren erdia bideratuko da, gutxi gorabehera. Intxurre Kultur Kirol Elkarteak jasoko du diru kopururik altuena: 4.030 euro. Langaurre

Txirrindulari Elkarteak da jarrera kopururik altuena jasoko duen taldea; 3.690 euro emango dizkio Udalak. Arrantza txapelketa, Xakaren oroi-menezkoa... bezalako probentzako ere dirua bideratuko du.

Arazo desberdinak medio, eskola-kirola bultzatzeko ematen den diru laguntza ez da zehazten, baina aurreten bideratuko dela zehaztu du Alegiako alkateak, Olatz Amundarainek.

Euskararekiko konpromisoa

Diru laguntza jasoko duten kultur taldeen artean, komunikabideak daude. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI, 2.600 euro emango zaizkio, Galtzaundiri 1.600 eta Txolarre Irratiari, berriz, 1.100 euro. Alegiako Kultur Orria egiteko ere 680 euro bideratuko dira.

Komunikabideei ez ezik, euskararen ofizialtasuna lortzeko lanean ari diren taldeak ere, hala nola, Kontseilua, Hizkun-

tza normalkuntza, euskara ikastaroak... badira dirua jasoko duten zerranda horretan.

Musikari dagokionez, Txintxarri abesbatzak 3.540 euro jasoko ditu eta musika ikastaroetarako ez da dirurik bideratuko eskaerarik izan ez delako.

Kalebeherako jaiak eta Langaurre Eguna antolatzeko diru laguntzak ere zehazten dira udal ordezkarien erabakian.

ALEGIA ▶ KIROLA

Eguberriko Pilota Torneoko finalak, gaur

Finalak 17:00etan hasiko dira; amaitzean, afizionatuen partida jokatuko dute

O.ESKITXABEL

Eguberriko Pilota Torneoa joan den astean hasi zen; lau urtetik hamaika urte bitarteko eskualdeko gaztetxo ugari hartu du parte. Gaur, finalak jokatuko dituzte.

16:30ean lau eta bost urtekoen partidak jokatuko dituzte. Ondoren, 17:00etan, finalak hasiko dira. Sei eta zazpi urtekoak, benjaminak, eta, azkenik, alebinak. Alebinetan, lehenik mutilen arteko finala jo-

katuko dute eta, ondoren, neskek irteneko dira pilotalekura; Azken kasuan ez ezik, gainontzeko finalak ere binakakoak izango dira.

Finaleko partidak amaitu ondoren, sari banaketa egingo dute; txapelketako partehartzaile guztiei opariak banatuko dizkiete.

Sari banaketaren ondoren, afizionatuen partida jokatuko dute Renobalesek eta Julen Mujikak E. Galarraga eta Axperen aurka.

ABURUZA Erakuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

BERASTEGI ▶ UREPELEREN URTEURRENA

Urtea amaitzeko egitarau oparoa izan dute Urepelen

Futbito partida jokatu zuten herritarren artean ostegunean; Urte Zahar Egunean I. San Silbestre Krosa antolatu zuten



Lehenengo San Silbestre kroseko maila guztietako irabazleak. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Pasa den abenduaren 30ean Berastegiko Urepele elkarteak lehenengo urteurrena ospatu zuten. Horretarako egitarau oparoa antolatu zuten elkartekoek.

Ostegunean, hilaren 30ean, jokatu zuten herriko gazteek futbito partida helduagoen aurka, eta gazteek irabazi zuten 6 eta 5eko emaitzarekin. Jende ugari hurbildu zen partida ikustera eta oso giro polita zabaldu zela aipatu dute antolatzaileek, Urepele gazte elkar-

teko kirol taldekoek, hain zuzen ere.

Futbolaren ondoren Urepele elkarteak bildu ziren bazkideak *lunch*-a baitzuten zain bertan. Gainera, argazki ugari jarri zituzten, urte osoan antolatutako ekitaldiez oroitzeko aukera eman zutelarik.

Hurrengo egunean, abenduaren 31n, lehenengo San Silbestre Krosa egin zuten. Guztira, txikien eta nagusien artean, 58 lagunek hartu zuten parte, eta horiek burutu beharreko ibilbidea 5 kilometrokoa izan zen.

SAILKAPENA ▶

NAGUSIAK

MUTILAK

1. Jon Zubillaga
2. Iban Agirrezabala
3. Iñaki Apeztebea

NESKAK

1. Itxaso Urkizu
2. Idoia Labaien
3. Nagore Tolosa
4. Arantxa Saralegi

TXIKIAK

MUTILAK

1. Mixel Etxeberria

NESKAK

1. Ane Urkizu

Nagusietan, Jon Zubillaga eta Itxaso Urkizu izan ziren garaileak eta txikietan, berriz, Mixel Etxeberria eta Ane Urkizu. Hauek guztiak garaikur bana irabazi zuten.

Gainerako korrikalarien artean aforiak, kirol arropak eta janaria zozketatu zituzten antolatzaileek, besteak beste.

Giro paregabea nagusitu zela bi egun hauetan azaldu dute antolatzaileek eta herritarren laguntza eskertu dute, «beharrezko izan delako».

BERASTEGI ▶

Podologoaren bisita izango da larunbatean

Datorren larunbatean, hilaren 8an, Podologoaren bisita izango da Berastegin. Gaztainondo jubilatuen elkartearen eskainiko ditu bere zerbitzuak 16:00etatik 19:00etara. Podologoaren zerbitzuaren beharrez dagoenak lehenago izena eman beharko du. Horretarako, Gaztainondo elkartera joan beharko du edo 943 683202 edo 943 683264 zenbakietara hots egin.

OREXA ▶

'Izengabeak' erakusketa herriko tabernan

Izengabeak izeneko pintura erakusketa dago ikusgai egunotan Orexako Kontsu tabernan. Hamalau koadro dira guztira eta horien izena ez jakiteaz gain autorearena ere ezezaguna da. Emakumeek dituzten gabeziak buruz mintzo dira koadroak, izenburuak islatzen duen bezala. Beste hilabetez luzatuko dute erakusketa eta hau amaituta erakusketa gehiagorako aukera izango da bertan.

LEABURU ▶



Andoni Otegi preso leaburuarrari herritarrek bidalitako argazkia. HITZA

Presoak gogoan Urte Berri Egunean

Andoni Otegi Eraso preso leaburuarra izan zuten, urtero bezala, gogoan Leaburu herritarrek urtea amaitu baino lehen. Horrela, herria atzean zutela jarri zuten hainbat lagun argazkia ateratzeko eta ondoren Parisen preso den herritarri bidaltzeko. Bestalde, Urte Berri Eguna modu berezian hasi zuten Leaburu eta Gazteluko herritarrek. Tolosarrek Uzturrera igotzeko ohitura duten bezala, hauek Larte mendira igo ohi dira euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzatela eskatuz.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanakak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ UDALA

Nafarroako gobernuak euskararekiko duen jarrera salatu dute

«Sakabanaketa politikaren ondorioz» gertatutako Karmele Solagurenen heriotza ere bai, Larrainen proposamenez

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo astean Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak egindako salaketari bere atxikimena adieraztea erabaki zuen Leitzako Udalak, aurreko astean burutu zuen hilabeteroko, eta, bide batez, urteko azkenekoa ere izan zen batzarrean.

Horrela, Nafarroako Gobernuak euskalgintzara bideratu nahi duen aurrekontuen murrizketa salatu zuten, eta «Nafarroako Gobernuak dituen asmo hauetan atzera» egiteko eta «euskararen normalizazioan duen konpromisoa eta erantzukizuna betetzen hastea» eskatu zuten. Ez zen, ordea, ahobatez onartutako eskaera izan, UPNko ordezkariak aurka bozkatu baitzuten, «ez da euskara-



Sakabanaketaren aurka hainbat ekitaldi egin izan dira. J. ASTIBIA

ren aurkako bozka» argituz, Euskara Zerbitzuek egiten duten lana ezbaian jartzen zuten bitartean.

Gai zerrendan izan zuten beste salaketa ere hala berean onartu zen. Kasu honetan, Larrain herri plataformak aurkeztu zuen Karmele Solagurenen heriotza salatzen zuen mozioa, eta Aralarreko eta EAko ordezkariak adostasuna agertu zu-

ten, «euskal preso politikoak sakabanaketa salatzea, Solagurenen heriotza salatzea eta bere familiari doluminak adieraztea eta dispertsio politika honen amaiera eskatzea», onartuz. UPNko kideek ez zuten eztabaidan parte hartu nahi izan, orain arte Larrainek aurkeztu dituen proposamen guztiekin egin izan duten moduan.

ARESO ▶ GIZARTEA

Urteberri goizean Olentzeroa txikituta eta bere aterpeko teilatuan azaldu da

'Ezezagunek' egindakoa ohitura bihurtzen ari da, dirudienez



Olentzeroa bere aterpera iritsi zen egunean. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Batzuk urte berriari lehenengo lepotik ekin diete: ez dago al-daketarik. *Ezezagunak*, halaxe-koak izaten jarraitzen dute eta nonahi beren «azainen» zigi-

lua agerian uzten dute, nolakoak diren ezaugarri gisa.

Gehienak urte berria ongi hasten saiatzen ari ziren bitartean, gazte gehienak festara, Leitzara joanak zirelarik eta gainerakoak etxeetan, atariak

hutsik eta gaueko iluntasunak ematen dien segurtasunaz baliatuz, *ezezagunek* herriko Olentzeroa txiki-txiki egin zuten eta, nahikoa «dibertitu» izan zirenean, bere aterpearen teilatuan utzi, HITZARI atzo jakinarazi ziotenez, «ekintza bortitz hau salatuz» eta «errespetu falta ikaragarritzat» joz.

Aipatzekoa da, gau hori horrela ospatzeko ohitura hartzen ari direla nonbait zenbaitzuek, izan ere, iazkoan ere beste hainbeste jasan behar izan baitzuten aresoarrek, kasu hartan, Olentzeroa, Leitzako errepedeko bidegurutzearan «agertu» omen zen eta.

Euskal Herriko bizimodua, ohiturak, eta, finean, euskaldunak gogoko ez izanik, konponbidea erraz askia litzake bada, gutstuko lekura joan.

LEITZA ▶

Zintzarriak joz, herrian gora eta behera ariko dira gaur

Pajeak ere etorriko dira gaur plazara, haurrek idatzitako gutunak jasotzera

J. ASTIBIA

Gaur gauean, gauerditik aurrera, herrian barrena zintzarriak joz ibiliko da jendea. Egun, eta batez ere umeentzat, Errege Magoen etorreraren iragarpen gisa-edo har badaiteke ere, batzuen iduritan, bestelako pentsaera dutenak ere badira: aspaldiko ohitura izaki, «amalurra esnatzen hasteko» soinua, neguko egunik motzenak ere igaro berriak baitira garai hauetan.

Urrutitik entzuten den zintzarri soinuak umeengan eragiten duen zirrara dela, hurrengo eguneko ospakizunaren iragarpen gisa; neguaren iluntasunari argitasuna gailentzen hasten den seinale dela; edonola ere, zintzarri, joale, kulunka, karraka... eskutan hartu eta kalez kale ibiliko da heldu jendea. Bihar eguerdiartean umeen txanda izanen da.

Bestalde, bihar herrira iritsiko diren Errege Magoen laguntzaileak, pajeak, gaur helduko dira, 18:00etarako, herriko plazara, gutunak jasoa eta erregei emateko.

GIZARTEA ▶

Bilbora joateko autobusa antolatu dute larunbaterako

J. ASTIBIA

Larunbatean, hilak 8, Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatuko dute Leitzatik ere eta bertan joan nahi izanez gero, Torrea tabernan eman behar da izena, beranduena, ostirala baino lehen.

Euskal presoaren sende eta lagunak biltzen dituen Etxerat-ek deitutakoa da, Bilbon, Kasillatik zehazki, 17:00tatik aurrera eginen den manifestazioa eta *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean burutuko dute.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, Zaballarreta, 1, (Tolosa). 943 673 849.

Gimeno, Elbarren, 52, (Leitza).

112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako

sukaldaria behar da,

asteburuetan lan egiteko.

943 691 933.

ALOKERA

Tolosa. Garaje itxia alokatzen

da. 609 43 59 07.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Hilaren 8an podologia etorriko da Gaztainondo elkartera, eta bere zerbitzuen beharrez dagoenak izena eman edo 943 683202 edo 943 683264 zenbakira deitu beharko du 16:00etatik 19:00etara.

Irura. Ipuin irakurketa herriko jubilatuen eskutik, 17:30ean, Zaharren Biltokian.

Irura. Ludoteka eta liburutegia zabalik izango da, 11:00etatik 13:00etara, gaurtik hilaren 8ra bitarte.

Leitza. Umeen aisialdiko egitaraua prestatu dute oporraldirako Karrapean Leitzaldeko Euskara Zerbitzukoek, 10:00etatik 13:00etara. Gaur Areson eta bihar Leitza. Hiru begirale izanen dituzte haurrek ekintzak antolatzeko.

Tolosa. Merkatu Txikia India eta Saharako eskolen alde, Laskorain ikastolak antolatuta, Kultur Etxeko behealdeko gelan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, hilaren 6a bitarte.

Tolosa. Lehen laguntzen ikastaroa antolatu du Tolosaldeko Gurutze Gorriak hilaren 10etik 22ra. 30 ordu dira, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara. Informazioa: 943 674888 eta 647 371529 telefonoetan.

Tolosa. Mendiko federatu txartela egiteko Oargi mendi elkarte zabalik egongo da asteartean eta ostegunetan 19:30etik 21:00etara.

Tolosa. Mendiko federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre mendi elkarte (Gudari 5, behea. Tolosa) astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara.

ZINE-KLUBA

Alegia. *Mar adentro* filma eskainiko dute 21:30ean Gaztebelean.

ZINEMA

Tolosa. *Los increíbles* filma. Gaur, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan. Ikuslearen Eguna.

Behar-Zanaren saskiak

VILLABONA ▶ Behar-Zana Kirol elkarteko Gabonetako saskien zozketa inguruko ezagunetakoa da; pilotaren sustapenera bideratzen dute jasotako dirua



Enrique Lahidalga Behar-Zana elkarteko lehendakaria eta Agustintxo Garmendia sari nagusiaren irabazlea, saria jasotzerakoan. HITZA

ERREDAKZIOA

Eguberriak garai aproposak izaten dira zozketak egiteko, eta hori nabaria da egunotan han eta hemen. Edozein motako elkarte berrin zozketak antolatzen dituzte, bai dirua bai saskiak oparitzen. Hori izaten da elkarte eta talde gehienek diru sarrera nagusia datozen hilabeteetako.

Behar-Zana Kirol elkarteak da zozketak antolatzen dituenetakoa bat. Hiru saski banatzen dituzte: saski nagusia eta bi saski

txiki. Saski nagusia Villabonako Agustintxo Garmendiari egokitu zaio aurtengoan, 7.381 zorbakiaren jabe izateagatik. Kiko Portu billabonatarak jasotzen zuen saski txikietakoa bat, 8.734 zorbakiarekin. Eta beste saski txikia 5.820 zorbakiaren jabea, Zizurkilgo Izaskun Dorronsorori egokitu zaio.

Kanarietara bidaia

Behar-Zanako zozketa da Villabona inguruko ezagunenetakoa, batez ere, ematen dituzten

saski oparoengatik. Elikagai —tartearen arkumea eta oilaskoa— eta edari ugarietz gain, saski nagusiarekin Kanariar Uharteetara bi pertsonentzako astebeterako bidaia edo 750 eurotako diru saria jasotzen du irabazleak. Eta aurtengo saski nagusia irabazi duenak ez du oraindik erabaki zein aukeratu duen: bidaia edo dirua. Horixe adierazi dio HITZARI.

Behar-Zana elkartekoentzat diru sarrera nagusia da Gabonetako saskien zozketa. Villabonako kirol elkarteak pilo-

taren sustapenerako erabiltzen du diru hori. Batez ere, Gipuzkoan, Villabonan eta Zubietan bakarrik jokatzen den errebot pilot modalitateerako. Bestalde, pilota eskola ere martxan dute Behar-Zanakoek.

Honek guztiak diru asko eskatzen du, eta, horregatik, urteroko saskien zozketaz gain, beste diru iturri batzuk ere erabili behar izaten dituzte Behar-Zanakoek, elkarteko kideen kuotaren ehuneko hogeita bosta, esaterako. Zorionak, beraz, aurtengo irabazleei.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK, IMANOL!
Atzoko partetik. Dagoeneko 3a utzi duzu eta 3. arekin hasi zara. Muxu handi bat, lagunek.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!